AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

6205

AGINDUA, 2011ko azaroaren 23koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena. Agindu honen bidez, saileko goi-kargudunaren idazkari lanpostu bat izendapen askez betetzeko egindako deialdiaren zati bat ebazten da.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.c) artikuluan eta sail honetan dauden lanpostu batzuk izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragarriz Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak 2011ko urriaren 5ean emandako Aginduko (urriaren 28ko EHAA, 205. zk.) hirugarren oinarrian ezarritakoaren arabera, honako hau

XEDATZEN DUT:

1.– Maria Rosario Iztueta Zaballa andrea Kupo eta Finantza Ekarpenen Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkari (C/D taldea, 520010-18 kodea, 18 maila) izendatzea.

2.– Izendapen honek 2011ko abenduaren 1etik bertatik aurrera izango ditu ondorio guztiak.

3.– Agindu honek administrazio-bidea amaitzen duenez, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organoari, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean; bestela, administraziorekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administraziorekiko Auzietako Epaitegian, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 23a.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.